



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

HEZKUNTZA, FILOSOFIA
ETA ANTROPOLOGIA
FAKULTATEA
FACULTAD
DE EDUCACIÓN, FILOSOFÍA
Y ANTROPOLOGÍA

Hezkuntza, Filosofia eta Antropologia Fakultatea (HEFA)

HARRERA-GIDA

Irakasle eta ikertzaile
berrientzako informazioa



AURKIBIDEA

1. AURKEZPENA
2. GOBERNU ORGANOAK, ORDUTEGIAK, TELEFONOAK
3. FAKULTATEAREN ANTOLAKETA
4. IKASTEGIAREN ZERBITZUAK
5. UPV/EHUren ZERBITZUAK
6. IRAKASKUNTZA
7. IKERKETA
8. HIZKUNTZA IRIZPIDEAK
9. BESTELAKOAK
10. IIPentzako AZALPEN BALIAGARRIAK
11. INFORMAZIO GEHIAGORAKO ESTEKAK
12. LARRIALDIETARAKO PLANA

HEZKUNTZA, FILOSOFIA ETA ANTROPOLOGIA FAKULTATEA (HEFA)

HEFAI eraikina: Tolosa Hiribidea 70, 20018 (Donostia)

HEFAII eraikina: Oñati Plaza 3, 20018 (Donostia)

IDAZKARITZAKO TELEFONOAK

HEFAI eraikina: 943 01 8235-8236-8975

HEFAII eraikina: 943 01 8456-8235-8236-7041

1. AURKEZPENA

HEFA 2481 ikasle, 231 irakasle-ikertzaile eta administrazio-zerbitzuetakoko 32 langile inguruk osatzen dugu. Euskal Herriari, euskal gizarteari eta munduari sei gradu (Lehen Hezkuntza/Haur Hezkuntza/Gizarte Hezkuntza/Pedagogia/Filosofia eta Gizarte Antropologia), bost master, lau doktorego programa eta bi berezko titulu eskaintzeko ardura dugu gure gain.

Gaurko HEFA 2016. urtean sortu zen, orduko Donostiako Irakasleen Unibertsitate Eskolak eta Filosofia eta Hezkuntza Zientzien Fakultateak bat egin zutenean. Fakultate bakarra osatzen dugu eta bi eraikinetan antolatuta gaude: HEFA I eraikina eta HEFA II eraikina.

HEFAn gurera datozen herritarrei zein profesionalei goi mailako prestakuntza eskaintzen saiatzen gara eta euskal gizartearen garapenerako ikerketa garatzen. Ezagutza sortzen dugu hezkuntzaren, filosofiaren eta antropologiaren esparruetan, eta pentsamendu kritikoa eta etikoa sustatzen ahalegintzen gara. Zerbitzu publikoa da gurea eta eredu berritzailea, jasangarria, inklusiboa, euskararen normalizazioaren eta gizarte eleaniztunaren aldekoa, eta aukera berdintasuna eta gobernantza parte hartzailea ditugu helburu.

HEFAI

2. GOBERNU-ORGANOAK

Dekanoa: AITOR MARTXUETA PEREZ

Idazkari Akademikoa eta HEFAleko koordinatzailea (Ordutegiak eta espazioak):

JUAN TELLERIA ZUECO

HEFAIko Dekanorde Koordinatzailea: LOREA FERNÁNDEZ OLASKOAGA

Akademia Antolakuntza Dekanordea: JUAN JOSE SISTIAGA LOPETEGI

Graduondokoen eta Berrikuntzaren arloko Dekanordea: OIHANA LEONET SIESO

Practicumaren eta GRALaren HEFAleko Dekanordea: ESTIBALIZ AMENABARRO IRAOLA

Practicumaren eta GRALaren HEFAIko Dekanordea: ITZIAR IRIONDO ARANA

Euskara, Kultura eta Komunikazio Dekanordea: BEÑAT SARASOLA SANTAMARIA

Mugikortasunaren eta Kooperazio Praktiken arloko Dekanordea: ELIZABET

AROCENA EGAÑA

Ikasleen eta Orientazioaren arloko Dekanordea: NAIARA GORROÑO VITERI

HEFAleko Dekanotzako Idazkaria: MARIA JESUS PARRAS SAUCEDAS

HEFAIko Dekanotzako Idazkaria: JON ETXEBESTE IRAETA

HEFAko Administrazio Burua: MERTXE TORRES GOMEZ DE CADIZ AGUILERA

ORDUTEGIAK

Fakultateko Ordutegia:

-Astelehenetik Ostegunera: 7:30-21:00
-Ostirala: 7:30-20:30
-Pazko Astea, Abuztua eta Gabonak:
7:30-14:15

Idazkaritzako Ordutegia:

-Goizez (astelehenetik ostiralera):
9:00-13:00.
-Arratsaldez (astelehenetik ostegunera):
15:00-16:30.
-Uda, Aste Santua eta Gabonak: 9:00-
13:00.

TELEFONOAK

HEFA I

Atezaintza: 943 01 8233-8232
Masterretako idazkaritza: 943 01
8688-8454-8975

HEFA II

Atezaintza: 943 01 8441
Graduetako idazkaritza: 943 01
8235-8236-7041-8456

3. FAKULTATEAREN ANTOLAKETA

HEFA bi eraikinetan banatuta dago: HEFAI eta HEFAII. Eraikin bakoitzak, ikasgela moduan beste bi eraikin ere badituzte: HEFAIek Barriola eraikina eta HEFAIIk Elbira Zipitira eraikina. Bestetik eraikin bakoitzean, ohiko ikasgelez gelez gain, zenbait gela eta espazio berezi daude bai ikasle eta irakasleen jardueretarako.

HEFA I

-1. solairuan:

- Kafetegia

0. solairuan:

- Areto Nagusia
- [Idazkaritza](#)
- Atezaintza

1. solairuan

- Informatika gelak
- Dekanotza
- Kopistegia

2. solairuan:

- Vending gunea
- Batzar aretoa
- Gradu aretoa
- Ikasleek lan egiteko gunek

3. solairuan:

- Ikasleek lan egiteko gunek
- Informatika gela
- Dinamika gela
- Paraninfoa edo hemizikloa

HEFA II

-1. solairuan:

- Musika gela, Plastika gela, Gimnasioa eta aldagelak

0. solairuan

- [Idazkaritza](#)
- Dekanotza, Kopistegia, Atezaintza

1. solairuan:

- Vending gunea
- Psikomotrizitate gela

2. solairuan:

- Areto Nagusia
- Informatika eta ikasleen lanerako gela (2.6)
- Langileentzako jangela
- IKT gelak

3. Solairuan

- Laborategiak
- Ikasleentzako bazkari gunea

4. solairuan

- Ikasteko edo lanerako mahaiak

5. solairuan

- Irakurketa gela

4. IKASTEGIAREN ZERBITZUAK

LANERAKO GUNEAK:

HEFAleko 0, 1, 2 eta 3. solairuetan lanerako mahaiak daude eta HEFA II n 0, 1 eta 4. solairuetan.

INFORMATIKA GELAK

Fakultateak ikasleentzat hiru ordenagailua gela ditu, bi HEFAlean eta bat HEFAII n.

KAFETEGI ETA JANTOKIA:

Emakida bidez, Fakultateak Kafetegi eta Jantoki zerbitzua eskaintzen du HEFAI n. Bere ordutegia **8.00-20.00** bitartean da. HEFAII n kafetegi gunea dugu 2. solairuan hozkailu, kafetera eta mikrouhin labeekin langileek erabil ditzaten.

KOPISTEGIA:

Bi eraikinetan kopistegi zerbitzua dago (ordutegia jarri)

5. UPV/EHUren ZERBITZUAK

PREBENTZIO ZERBITZUAK

UPV/EHUko langile, ikasle eta erabiltzaile guztien segurtasun eta osasunari arreta.

OSASUN ARLOA

UPV/EHUr a lehenengo aldiz iristen diren langileek zerbitzu honetan osasun azterketa bat eskatu behar dute. Beste jarduera batzuen artean, urteko osasun azterketak egiten dizkie eskatzen dutenei.

Barriola Eraikina (8144 luzapena).

TEKNIKA ARLOA

Segurtasun eta Higiene Industrialaren espezialitate eta diziplina prebentiboari dagozkion maila nagusiko eginkizunak.

Barriola Eraikina (8438 luzapena).

UNIBERTSITATE TXARTELA

Unibertsitate txartelaren erabilpena prozesu eta aplikazio hauetan aplikatuko da, pixkanaka:

- Langilearen atarira sarrera.
- GAUR-era sarrera.

- Akademi aktaren sinadura elektronikoa
- Liburuen mailegutza.
- Ikastegira ordutegi ofizialetik kanpora sarbidea.
- Hizkuntza ikasteko Laborategira sarbidea.

Txartela Idazkaritza Zerbitzuan kudeatuko da.

LANGILEAREN ATARIA

Giza Baliabideen prozesu administratiboan deszentralizaziora bideratuta dago; datu pertsonalekin, profesionalekin eta ekonomikoekin zerikusia duen guztia kontsultatzea eta kudeatzea ahalbidetzen du.

CAMPUS ETA IKASTEGI ARTEKO POSTA

Eguneroko barne posta zerbitzu bat dago Campuseko ikastegi desberdinen artean, hala nola, Errektoreordetzarekin eta UPV/EHUko Bizkaiko eta Arabako ikastegiekin. **Zerbitzua Atezaintzan kudeatuko da.**

KONTSIGNA

Sarean fitxategiak trukatzeko erabiltzen da.

6. IRAKASKUNTZA

UNIBERTSITATEKO AKADEMI GESTIO GAURKOTUA (GAUR)

Aplikazio honek irakasleei egungo eta hurrengo ikasturteetarako aurreikusi den ikasama ezagutzea, aktak kalifikatzea (ikasleen notak grabatzea), ikasle zerrendak kudeatzea, e.a. ahalbidetzen du. Zerbitzura sartzeko, UPV/EHUKo pertsonal guztiari jakinarazten zaion erabiltzailea eta pasahitza erabili behar dira (LDAP).

eGELA

Gela birtualak kokatzen diren plataforma da. Bertan, zeure irakasgaia irakaskuntza gidan (unibertsitatearen web gunean argitaratuta) ezarritako jarraibideekin bat etorrita diseinatu dezakezu, baita ikastaldeei jarraipena eman ere. Gela birtualen aktibazioa [Ikasgela Birtualean Kudeaketan](#) eskatu behar da.

TUTORETZA-ORDUTEGIAK

Irakasle bakoitzak bere tutoretza Orduak GAUREn sartu behar ditu, lauhileko bakoitza baino lehen. Tutoretza orduak publikoak dira

IRAKATS-INKESTAK

Lauhileko bakoitzaren amaieran, ikasleei inkestak egiten zaizkie. eGela bitartez burutuko dira.

IRAKASUNTZA ZIURTAGIRIAK

Irakaskuntzarekin lotutako ziurtagiriak eskuratzeko gunea.

7. IKERKETA

IKERTU

Zure curriculum vitae grabatu eta eguneratzeko aplikazioa da. Eguneratuta mantentzea komeni da.

Harremanetarako ikertu@ehu.eus.

IKERKETA TALDEAK

Fakultatean dauden ikerketa taldeei buruzko informazioa.

EKOIZPEN ZIENTIFIKOAREN ATARIA

UPV/EHUKO ekoizpen zientifikoa eta ikerketa jardura jakintza arloan, sailen, ikastegien, ikertaldeen eta ikertzaileen arabera kontsulta daiteke.

8. HIZKUNTZA IRIZPIDEAK

LEHEN HITZA EUSKARAZ

HEFA komunitatean lehen hitza euskaraz izatea hobesten da, bai barne-komunikazioan baita kanpoko eragileekiko harremanetan.

BILERAK

HEFAko bilera guztietan hizkuntza nagusia euskara da: sailekoak, graduetakoak, masterrekoak, koordinaziokoak, moduluetakoa eta abar. Kideren batek euskarazko komunikazioa ulertzeko zailtasunak baditu, beharrezkoa neurriak hartuko dira bere ulermena bermatzeko, betiere euskarazko komunikazio nagusia eten gabe.

IDATZIZKO BARNE KOMUNIKAZIOA

Idatzizko barne-komunikazioetan (posta elektronikoak, txostenak, zirriborroak etab.) euskara erabiltzea hobesten da.

IKASGAIAKONUNIKAZIO HIZKUNTZA

Ikasgaietako komunikazio-hizkuntza ikasketa-programek ezarritakoa da. Hala, euskarazko ikasgaietan irakaskuntza-zein komunikazio-hizkuntza euskara dela bermatuko da.

8. BESTELAKOAK

WEBUNTIS

UPV/EHUKo ikasgelak erreserbatzeko sistema integratua, datuak GAUR aplikazioarekin zuzenean transferituz. Zentroko ikasgelak erreserbatzeko balio du. Eskaera berezietarako erabili hurrengo [ataria](#).

IRAGARKI OHOLAK

UPV/EHUKo pertsonalari zuzendutako unibertsitate jarduerekin zerikusia duten jakinarazpen eta iragarkien laburpenak igortzen ditu posta elektronikoko bidez egunero. Ikastegiekin, sailekin, atalekin, zerbitzuekin, ikerketa taldeekin eta bestelako organoekin bere iragarki oholak eduki ditzakete.

POSTA ELEKTRONIKOA

UPV/EHUK, bere langileei posta elektronikoko kontuak eskaintzen dizkie beraiei irakaskuntza, ikerkuntza edo kudeaketa lanetan laguntzeko. Kontratua sinatu ondoren modu automatikoan sortzen da.

TELEFONO-LUZAPEN ETA POSTA ELEKTRONIKOEN BILAKETA

UPV/EHUKo pertsonalaren izena jakin arren bere telefono luzapena, saila edo helbide elektronikoa ezagutzeko, UPV/EHUKen orri nagusiko [direktoria](#) erabili.

LDAP KONTU BAKARRA

UPV/EHUKo datuen sare korporatiboak LDAP izeneko kontu sistema bat du, eta horren helburua erabiltzaileei kontu eta pasahitz bakarra erraztea da sarean zerbitzu eta aplikazio korporatiboetara sartzeko. Erabiltzaile korporatibo guztiek eta Unibertsitatean matrikulatuta dauden ikasle guztiek LDAPen sortutako kontua dute.

ERABILTZAILEARENTZAKO ARRETA ZERBITZUA (EAZ)

Erabiltzaileak bere ordenagailu pertsonalari edo sarean eskainitako zerbitzuei buruz eskaerarik, kontsultarik edo arazorik badu, EAZera zuzendu beharko da eta inzidentzia erregistratu (**154400 luzapena**).

UNIKUDE

Ikastegien kudeaketa sistemaren jarraipen eta berrikusketan laguntza emateko eta UPV/EHUK sortu eta garatutako aplikazio da. Gure ikastegiaren Kalitatea Bermatzeko Barne Sistemari (KBBS) buruzko informazioa aurkituko duzu [bertan](#).

VPN

Sare pribatu birtuala. Sare korporatibora kanpotik urrunetik sartzeko zerbitzua.

EDUROAM

Educational Roaming nazioarteko egitasmoa.

LIZENTZIAK ETA BAIMENAK

Amatasun/aitatasun, zaintza, ezkontza, ikasketak, kontsulta medikuak, ekitaldiak, etab. etarako eskaera gunea.

EGOITZA ELEKTRONIKOA

UPV/EHUK herritarrei eskaintzen dizkien prozedura eta zerbitzuei buruzko informazioa eta izapidetzea.

[NIRE EHU \(Intranet\)](#)

UPV/EHUko zerbitzu nagusietara sarbidea.

[TRANSFERENTZIAKO ZIURTAGIRIAK](#)

Enpresa eta erakundeekin jakintzaren transferentzia eta berrikuntzarako (IETB) ataria.

[ZERBITZU ORDAINAK \(IZAPIDE\)](#)

Zerbitzu ordainak (dietak eta joan etorriak) izapidetzeko prozedura automatizatua.

[LAN POLTSAK](#)

UPV/EHUko lan eskaintzaren ataria.

9. IPentzako AZALPEN BALIAGARRIAK

[ARAUDIAK](#)

10. INFORMAZIO GEHIAGORAKO ESTEKAK

[EGUTEGIA ETA ORDUTEGIAK](#)

[GRADU ETA MODULUETAKO KOORDINATZAILEAK](#)

[PRACTICUM GIDAK ETA PROGRAMAK](#)

[GRADU AMAIERAKO LANA \(GRAL\)](#)

[MUGIKORTASUNA](#)

[BERRIAK ETA EKITALDIAK](#)

[IRADOKIZUNAK, KEXAK ETA ERREKLAMAZIOAK](#)

11. LARRIALDIETARAKO PLANA

HEFA Fakultateko larrialdietarako planak, beharrezkoa izanik, zentroa nola hustu behar den esaten digu. Ikasturtero huste-simulazioa egingo da guztiok jakiteko nola jokatu behar dugun eta, aldi berean, izan litezkeen antolatze-akatsak detektatzeko.

Larrialdietarako Planaren Arduradunak:

HEFAI: Aitor Martxueta, Mertxe Torres.

HEFAII: Lorea Fernández, Mari Jose Colina.

ESKOLA HUSTEA

Alarma orokorra badago, pertsona guztiek eraikina hustu behar dute modu ordenatuan, hurrengo arauak jarraiki:

- Egon lasai, eta ez egin korrika.
- Irten eraikinetik hurbilen daukazu ebakuazio eskaileratik.
- Jarraitu irakaslearen edo zerbitzuko arduradunaren oharrei.
- Ez erabili igogailurik inoiz.
- Ez joan atzerantz.
- Norbaitek eraikinetik irteteko arazoak baditu, lagundu.

BILGUNEAK

Eskola hustu ondoren, pertsona guztiak bilgunean elkartu behar dira (argazkian seinalatuta dagoen lekuan). Norbait falta dela seguru bazaude, abisatu UPV/EHUko pertsonalari.

GIPUZKOAKO CAMPUSA ISTRIPUETARAKO JARRAIBIDEAK

PREBENTZIO ZERBITZUA Barriola Ikasgelategia - Donostia Tel.: 943 015 216 - 943 018 144

IKASLEAK

Babes mota: Eskola Asegurua
edo/eta nahitaezko EHU ikasle aseguruak

ISTRIPUA LARRIA BADA

- 1. 112** ra deitu
- Prebentzio Zerbitzura deitu:
5216 / 8144
- Eraikinean sarbideak ireki
(mutiloak/hesiak)

ISTRIPUA LARRIA EZ BADA

Prebentzio Zerbitzura deitu:

5216 - 8144

eta



DOKUMENTAZIOA

Ikastegiaren antolaketarekin bat, administrazio buruek, koordinatzaileek edo administratzaileek eskola istripuaren parte bete behar dute eta istripuaren berri eman behar diote Prebentzio Zerbitzuari.

INFORMAZIO GEHIAGO

www.ehu.eus/eu/web/kontratazioa/nahitaezko-aseguruak

AZP eta Gizarte Segurantzako IIPak

BABES MOTA: Gizarte Segurantza
ASISTENTZIA: MUTUALIA

ISTRIPUA LARRIA BADA


- 1. 112** ra deitu
- Prebentzio Zerbitzura deitu:
5216 / 8144
- Eraikinean sarbideak ireki
(mutiloak/hesiak)

ISTRIPUA LARRIA EZ BADA

Prebentzio Zerbitzura deitu:

5216 - 8144

eta



DOKUMENTAZIOA

Ikastegiaren antolaketarekin bat, administrazio buruek, koordinatzaileek edo administratzaileek laguntza parte bete behar dute eta istripuaren berri eman behar diote Prebentzio Zerbitzuari.

INFORMAZIO GEHIAGO

www.mutualia.es
Istripuetan laguntza eskatzeko tel. (24 ord.): 900 506 070

IRAKASLE KATEDRADUNAK edo TITULARRAK

BABES MOTA: Muface
ASISTENTZIA: alde zaurretik aukeratutakoa

ISTRIPUA LARRIA BADA


- 1. 112** ra deitu
- Prebentzio Zerbitzura deitu:
5216 / 8144
- Eraikinean sarbideak ireki
(mutiloak/hesiak)

ISTRIPUA LARRIA EZ BADA

Prebentzio Zerbitzura deitu:

5216 - 8144

eta



DOKUMENTAZIOA

Ikastegiaren antolaketarekin bat, administrazio buruek, koordinatzaileek edo administratzaileek istripuaren berri eman behar diote Prebentzio Zerbitzuari.

INFORMAZIO GEHIAGO

www.map.es/muface/muface.html
Donostia: 943 980 410